



Zuriainek eraikin
berria du
bizilagunentzat
Kontsumo bonuen
programa Esteribarko
establezimenduetan
Ekipamendu berria
Olokin

2020-2021 ikasturtea
COVID-19aren erronkaren
aurrean
Esteribarko jubilatuen
Elkartearekin mintzatu
gara

ESTERIBARKO UDAL INFORMAZIO ALDIZKARIA

I urtea- 2. alea

Argitaratzailea:

Esteribarko Udala,
Orreaga etorbidea, 13
31630 -Zubiri
Tel: 948 30 40 71

www.esteribar.org

Diseinua eta erredakzioa:

Argus CCI Ediciones

Argazkiak:

Blanca López
Artxiboa

Imprimatzailea:

Huarte Gráfica

Lege Gordailua:

TELEFONO INTERESGARRIAK

Esteribarko Udala (Zubiri) 948 304 071
Gizarte Zerbitzuak 948 304 345 (astearte eta asteazkenez)
Gizarte Zerbitzuak Aurretiazko hitzordua 948 333 223
Euskara Zerbitzua 948 304 071
Esteribarko Kiroldetgia 948 304 007
Ollokiko Gizarte Etxea 948 517 796
Erregistro Zibila 948 304 071
Bake Epaitegia 948 304 300
Esteribarko Haur Eskola 948 361 575
Gloria Larrainzar Ikastetxea 948 304 513
Zubiriko kontsultategia 948 304 106
Larrasoñako kontsultategia 948 304 342
Eugiko kontsultategia 948 304 319
Uharteko Osasun Etxea 948 335 033
Botika:Lda. Liso (Zubiri) 948 304 226
Taxi F. Ventana (Zubiri) 609 447 058
Lineako autobus zerbitzua A. Artieda 948 300 287

KONTZEJUAK

- Antxorizko Kontzejua: Ana Gurbindo | concejodeantxoriz@gmail.com
- Eugiko Kontzejua: Estíbaliz Iribarren | concejodeeugi@gmail.com 948 304 047
- Inbuluzketako Kontzejua: Fran Equisoain | franequi@hotmail.es 948 304 139
- Iragiko Kontzejua: David Sánchez | concejoiragi@gmail.com
- Larrasoñako Kontzejua: Argiloa Mangado | concejodelarrasoana@gmail.com 699788034
- Saigosko Kontzejua: David Urio | davidurioe@yahoo.es
- Sarasibarko Kontzejua: Enrique García | concejo.sarasibar@gmail.com
- Zabaldikako Kontzejua: Cruz Zazpe | concejodezabaldika@gmail.com
- Zubiriko Kontzejua: Urtzi Arrieta concejodezubiri@gmail.com 948 30 43 78
- Urdaizko Kontzejua: Txus Arana | urdaitzurdaniz@gmail.com



ESTERIBAR DESKUBRITZEAK SARIA DU!

Hemen duzu ibarreko toki baten argazkia. Zein leku den baldin badakizu, bidal diezaguzu zure erantzuna noticiasesteribar@gmail.com helbidera, opari bat dugu parte hartzen duzuenen artean zozkatzeko.

ALDIZKARIAN PARTE HARTU NAHI AL DUZU?

Esteribarren bizitzeaz gain, zaletasun zehatzen bat baduzu, elkarte edo talde bateko kide bazara edo sinpleki Esteribarko aldizkarira ekarpenen bat egin nahi baduzu, bidali mezu elektronikoa noticiasesteribar@gmail.com helbidera. Adierazi landu nahi duzun gaia eta zurekin harremanetan jarriko gara.

ESTERIBARKO JUBILATUEN ELKARTEAREKIN MINTZATU GARA

Azken hiruhilekoan jardueraren bat egitea espero du elkarteak

Estatutuek helburu hauek ezarri zituzten: hirugarren adinekoentzako kultura eta jolas-jarduerak sustatzea; erretiratuek jolas, heziketa, hezkuntza eta kultura arloko jardueretan parte har dezaten bultzatzea; erretiratuen intereseko informazioa zabaltzea sustatzea; erakunde publikoekin lankidetzan aritzea hirugarren adinari buruzko neurriak planteatzeko, eta elkartekideei aholku ematea administrazio publikoak eskaintzen dituen jarduerari eta baliabideei buruz. Gaur egun, helburu nagusiak kultur arlokoak dira, bazkideen arteko harremana sustatzekoak eta osasuna prebenitzekoak eta sustatzekoak.

Vicky Caballerodugu Elkarteko lehendakaria, eta hauxedio: "azken bi urteotan lanean aritu den elkarteko juntan 9 pertsona gara eta gaur egun bailara osoko 162 bazkide gaude." Kidetzeko baldintza bakarra jubilatua edo pentsioduna izatea eta elkartearekin harremanetan jartzea da.

Elkarteak bazkideen kuotekin eta Nafarroako Gobernuaren eta Esteribarko Udalaren diru-laguntzekin finantzatzen ditu bere jarduerak. Egoitza eta lokalak Zubiriko Betargi eraikinean daude. Egungo egoera ikusita, juntak Betargi ixtea erabaki zuen, beste abisu bat eman arte, COVID-19ak dakarren arrisku berezia dela eta.

Elkarteak bultzatzen duen kultur jardueren programaren baitan, eguneko txangoak egin ohi dira, eta urtean behin astebeteko bidaia antolatzen dute, iaz Salamancara joan zena. Urtean hainbat bazkari ere antolatzen dituzte: urtaro bakoitzean bat eta urrian, Zubiriko antzinako jaien egunean, Bazkidearen Eguneko bazkaria. "Amitxi-apitxi", antzinako jolas eta ofizioen eguna ere antolatzen dute, laugarren edizioa tokatzen zen aurten, baina tradizio bilakatu den haurrendako aire zabaleko zine-txokolatadaren gisan, ezin izan dira egin.

Jarduera fisikoko tailerrak ere antolatzen dituzte urtero: gimnasia, yoga Irotzen, pilates eta jarrera-berrantolaketa. Ingurumen Hezkuntzari buruzko hitzaldiak, iktusari buruzko prebentzioa, informatika eta mugikorraren erabilera tailerrak, lehen sorospenak, helduentzako ipuin kontaketa saioak eta dantzaldiak ere eskaintzen ditu elkarteak. Beren gizarte-jardueren baitan, ibarreko adineko pertsonari bisitak egiten dizkiete etxez etxe. Ekimen honek poztasun handia ematen die bai bisitariari zein bisita jasotzen dutenei ere.

Orain artekoak bertan behera geratu badira ere, azken hiruhilekoan jardueraren bat egin ahal izatea espero du jubilatuen elkarteak.



Esteribarko Erretiratuen Elkarteak jolas, kultura, hezkuntza eta prestakuntzari dagozkion helburuak ditu.

AMAITU DIRA ZURIAINGO ERABILERA ANITZEKO ZENTROKO LANAK

Zurianek erabilera anitzeko eraikin berria izanen du. 147 m² ditu, eta herriak gaur egun dituen 100 biztanle baino gehiagoren elkargunea izanen da. Herriaren goiko aldean urbanizazio berria eraiki zenetik biztanleriaren hazkundera nabarmena izan da, eta herritarren aspaldiko eskaria izan da horrelako lokal sozial baten eraikuntza.

Lanak bukatu dira jada, eta laster egonen da erabiltzeko prest. Esteribarko Udalak hitzarmena sinatuko du auzo elkartearekin, bere behar eta ekintza propioetarako baliatu ahal izan dezan, izan ere, erabilera publiko anitzetarako pentsatutako espazioa baita. Udalak diru-laguntza jaso du Landa Garapenerako Europako

Nekazaritza Funttsaren (LGENF) zein Landa Garapenerako Programaren eskutik, Cederna-Garalur Tokiko Ekintza Taldearen kudeaketari esker.

Cederna Garalurreko teknikari Edurne de Miguelek 17 urte baino gehiago daramatza udalean duen bulegotik ibarrari zerbitzua ematen. Bertako garapen sozial eta ekonomikoan burubelarri, tokiko eragile sozial eta ekonomikoekin lankidetzan estuan aritzen dira tokiko garapenerako estrategiak abian jartzeko. Bizikalitatea hobetu eta zerbitzu publiko zein pribatuen sarea finkatzera bideratutako proiektuak sustatzen dituzte, funtsean, biztanleria landaingurunean mantendu zein bertara erakartzeko asmoz.



Zuriaingo lokal berriak 147 m² ditu.

ESTERIBARKO HAUR ESKOLAKO AURKEZPENA FAMILIEI

2020-2021 ikasturte berriaren aurkezpena egin zitzaion Esteribarko Haur Eskolakofamiliei joan den abuztuaren 26an arratsaldeko 18:00etan Ollokiko Gizarte Etxeko lokaletan.

Matilde Añón ibarreko alkateak azaldu bezala, ikasturte honetatik goiti, eskolaren kudeaketa udaletik zuzenean egingen da Zubilan Udal Elkartearen bitartez, eta horixe da hain zuzen ere berrikuntza nagusia. Aurreko ikasturteko langileak subrogatzeaz gain, hezitzaile berri bat ere kontratatu da aurrean, egungo beharrei erantzun ahal izateko.

Besteak beste, eskolan egingen diren obren berri eman zitzaion familiei: lanek ingurutzailerik termikoa, estalkia eta kanpoko arotzeria hobetuko dituzte, eta Nafarroako Go-

bernuko Hezkuntza Departamentuaren diru-laguntza jasoko da horretarako.

Irailaren lehenean hasi zen 2020-2021 ikasturtea, 22 familiatara 24 hurrekin. Orotara hiru taldeetan banatuko dira: 0 eta 1 urte bitartekoak (5), 1-2 urtekoak (9) eta 2-3 urtekoak (10). Maika Armendariz zuzendariak haur eskolako Kontingentzia Plana aurkeztu zion bertaratutakoei. Hezkuntza-taldeak udalarekin batera prestatutako planaren helburua Covid garaian ikasleen eta haien familien segurtasuna eta osasuna bermatzea da, Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Sailaren jarraibideei eta dokumentuari jarraiki.



Haur Eskolako ikasturte berriaren aurkezpena

Hezitzaileek familien intereseko beste hainbat alderdi ere azaldu zituzten ikasturteko lehen bileran honetan.

IKASGELETARA ITZULERA GLORIA LARRAINZARREN

Zubiriko Gloria Larrainzar ikastetxe publikoko langileak egun batzuk lehenagotik lanean hasi baziren ere, irailaren 7an abiatu zen 2020-2021 ikasturtea.

Zubiriko zeinibarreko beste herrietako ikasleak biltzen dira ibarreko ikastetxean. Aurtengo ikasturtean orotara 104 ikaslek egin dute matrikula haur hezkuntzako 2. ziklokoen eta lehen hezkuntzakoen artean.

Ikastetxeak 18 irakasle ditu, eta eskolak A eta D ereduetan ematen dituzte, bai haur hezkuntzako bigarren zikloan, baita lehen hezkuntzan ere.

Aurreko ikasturtea aurreikusitako datan amaitu bazen ere, azken hilabeteetan telematikoki eman ziren eskolak. Ikasturte berri honi, aldiz, aurrez-aurreko klaseekin diote. Une korapilatsuaizanik, langile guztiak ari dira lanean eskolako funtzionamendua egokitzeko. Horrela, aurreikustea zaila den egoera berri honetan, 2020-2021 ikasturterako Kontingentzia Planari jarraituko diote, eta plana bera etengabe berrikusiko da ikasturtea aurrera egin ahala.

Edozein gisaz, hauxe zehaztu du zentroko zuzendaritzak: "bizi dugun egoera berriari ahalik eta erantzunik onena emateko ari gara lanean."



Zubiriko Gloria Larrainzar Eskola Publikoa

DENDA-KAFETEGI-TABERNA BATEN ERAIKUNTZA LASTER OLLOKIN

Esteribarko Udalak ekainean atera zuen lizitazioa Ollokiko merkataritza-eraikin berria, eta dagoeneko abiatuak dira lanak. Kirol-pista, haur-parkea eta gizarte-etxea kokatzen diren lurzatian eginen da, izan ere, Olloki herriak 1.600 biztanle inguru dituen arren, ez baitu oraino merkataritza-lokalik.

Taberna-kafetegia eta oinarrizko elikagaiak saltzeko gunea izanen ditu lokalak. Espazio hori elkargune eta erreferentziatzko bilgunea izatea da asmoa, gizarte-kohesioa lagundu eta bultzatuko duen zerbitzu anitzeko gune bat sortzeko, hainbat herriri horrenbesteko bizitza eman zieten antzinako janari-denden

bertsio eguneratu moduko bat, hain zuzen ere.

Marta Pérez arkitektoak egindako obra-proiektua ekintza berritzailea da oso. Herritarrei oinarrizko zerbitzuak bermatu eta landa-ingurunean biztanleria mantendu eta sendotzeko helburua izanda, Cederna-Garalurrek eginiko kudeaketari esker, lokal berriak LGENF programaren diru laguntzak jaso ditu, hau da, EBko nekazaritza-funtsak Landa Garapeneko Programako ekintzak finantzatzeko baliatzen dituenak. Lanak hasita daude jada, eta lokala 2021eko lehen hiruhilekoan amaitzea aurreikusten da.





Bono de la campaña

BAILARAKO SALTOKIEN- DAKO BONU PROGRAMA

Ibarreko saltokietan kontsumoa sustatzeko elkarlanean ari dira Esteribarko Udala eta Nafar Basoak Enpresa Elkar-
tea.

Horrela, abuztuaren 24tik urriaren 31ra bitartean eskuratu ahal izanen

dira bonuak, Zubiriko Esteribar Kiroldegian bertan kokatuta dagoen Turismo Informazioko Gunean bertan. COVID-19 pandemiaren ondorioz jarduera geldiarazi edo gutxitu behar izan duten saltokietan kontsumoa bultzatzea da kanpaina honen helburua.

Enpresak Dinamizatzeko Planaren baitako ekintza dugu honakoa, eta joan den ekainean aurkeztu zitzaizen ibarreko enpresei, Esteribarko Kiroldegiko lokaletan eginiko bilkuran. Deialdi honetan parte hartu dezakete besteak beste, Nafar Basoak elkarteko kide diren establezimenduek. Txartelak 5 ala 10 eurokoak dira. 5 eurokoak 40 eurotik beherako erosketetan truka daitezke, eta 10 eurokoak aldiz, 40 eurotik gorako erosketetan balia daitezke. Promozio honek bonuak metatzeko aukera ematen du, betiere gastu-tarteak errespetatzen badira.

Bonuak eskuratzeko, Kiroldegiko Turismo Informazioko Gunera joan behar da, eta bertan izen-abizenak eta NAN zenbakia eman besterik ez da egin behar. Informazio gehiago jasotzeko, deitu 948 304 797 telefonora.

IROZKO ZUBI ERROMANIKOA ZAHARBERRITU DA

Maiatzean amaitu zen Iturgaizko zubia (Irotz) garbitzeko eta zaharberritzeko lanen lehen fasea, eta udan eginda obren bigarrena. Besteak beste, goiko ganga finkatu da, junturak egin eta harlangaitzeko betelana osatu da, eta petrila ere berritu da. Iruñerriko Mankomunitateak egin ditu lanak.

Otsailean hasitako lanei esker, ibiltzeko eremua handitu eta ur-hoditeria egokitu ahal izan da. Proiektuak inguruko argiztapen-sistema berria instalatzea ere barne hartzen du.

Iturgaizko XII. Mendeko zubi erromaniko ospetsuak Arga zeharkatzen du Irotz herrian, interes arkitektoniko eta kultural handikoa da (bertatik igarotzen da Frantziako Done Jakue Bidea) eta herrira iristeko bide bakarra da gai-

nera. Irotzeraino Iruñerriko Mankomunitateko Ibai Parkea iristen da.

Udalak, bere aldetik, herrira sartzeko bidearen obrak amaitu ditu, zorua berrituz, hesi berri bat jarritz eta argiteria eta zuntz optikorako kanalizazioak eginez. Nafarroako Gobernuaren Toki Azpiegituren Programaren (TAP) diru-laguntza jaso dute lanek.



El puente románico de Iturgaiz en Irotz ya restaurado

GOI INPERIOKO MILIARIO ERROMATAR BAT AURKITU DUTE SETOAINEN

Juanmari Martínez Txoperena Aranzadi Elkarteko kideak miliario erromatar bat aurkitu du Setoaingo Etxezarreta udalerrian. Miliario zilindriko bat da, goi inperial garaikoa (K.a. I. mendetik K.o. III mendera), eta zokalo angeluzuzena duena: 1,85 metroko altuera du eta 55 cmko diametroa. Mikrofosilen analisiak Ilurdozko harrobi zaharretatik ateratako kareharriz egina dagoela adierazten du.

Goi inperial garaian miliarioek ez zuten inolako inskripziorik izaten, gurdietatik jaitsi behar izanik gabe kokapena errazteko baizik ez baitziren margotzen. Garrantzi handiko aurkikuntza dugu honakoa, izan ere, Arre eta Aurizberri lotzen zituen galtzada zatia bertan dela baieztatzen baitu.

Miliario honen jatorrizko kokapena Larrasoaña-Urdaitz inguruan egonen zela uste da, eta nahiko ohikoa den gisan, eraikin baterako berrerrabili zela. Izan ere, formarengatik, zutabe ezin hobea izaten zen ermitetan edo beste eraikin mota batzuetan kokatzeko. Esteribarko-Udala espediente bat bideratzen ari da Nafarroako Gobernuko Ondare Zerbitzuarekin, pieza erreskatatu, birkokatu eta Vianako Printzeak kataloga dezan.



Setoaingo miliarioa

“EZAGUTU ESTERIBAR” JARDUEREN AGENDA

Udaleko Turismo Informazioko Guneak, Nafar Basoak eta Cederna Garalur elkarteekin elkarlanean, Larrasoaña, Zubiri eta Eugiko ondarea ezagutzeko jarduera gidatuak prestatu ditu iraila eta urrirako. Horretaz gain, gure natura-ondarea ezagutzeko bi mendi-ibilaldi ere antolatu dira.

Hona hemen jardueren egutegia:

- Done Jakue bidearen ondare historikoa: ibararren historia ezagutzen. Larrasoañatik Zubirira, Done Jakue bidetik irailaren 5ean eta urriaren 6an.

- Zubiriko ondarea ezagutzeko bisita urriaren 17an.
- Eugiko ondarea ezagutzeko bisita urriaren 12an.
- Mendira txangoa irailaren 26an eta urriaren 24an

Jarduera guztiak doakoak dira, eta parte hartzeko, Esteribarko Kiroldegiko Turismo Informazioko Gunean eman behar da izena. 6-12 lagunekoko taldeak. Informazio gehiago 948 304 797 telefonora hots eginda.

“ELIKADURA ETA ARIKETA FISIKOA, BIZIMODU OSASUNGARRIRAKO OHITURAK” HITZALDIA

José Javier Celorrio Esteribarko familia-mediku eta Ariketa Fisikoan eta Osasunean adituak (NUP) eta David Rico Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzian adituak emandako hitzaldiaren izenburuak laburtzen du gaia: “elikadura eta ariketa fisikoa: bizimodu osasungarrirako ohiturak”. Asistentzia aurreikuspen guztiak gaingindu ziren, gaiak sortzen duen interesa agerian utziz. COVID-19ak ezarritako baldintzen arabera 70 laguneko edukiera aurreikusi bazen ere, bertaratutako hainbat herritar kanpoan geratu behar izan ziren.

José Javier Celorrio doktoreak azaldu zuen elikadurak zer-nolako eragina duen gure osasunean, eta zer jarraibide jarraitzea komeni den elikadura osasungarria izan dadin eta hortaz, gure gorputza edozein adinetan egoerarik onenean mantentzeko. David Ricok nabarmendu zuen ariketa fisikoa ezinbesteko osagaia dela gure osasun fisikoa eta psikikoari eusteko. Bestalde, gauza frogatua da dieta osasungarri

batek eta bizitza aktibo batek botikekiko mendekotasun txikiagoa dakartela.

“Pastillatik zapatilara” programa jarduera fisikoaren eta osasunaren tokiko proiektuaren parte da, eta arrisku-faktoreak eta osasuntsuak ez diren ohiturak dituzten pazienteei zuzenduta dago, besteak beste, tentsio-maila, kolesterola, glukosa, biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa (BGBK) eta abar hobetzeko. Tamalez horren ohikoak diren patologia askorentzat jarduera fisikoa errezetarik onena dela erakusteko asmoa du Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza jasotzen duen programak. Esteribarko Udalakosasan zentroarekin koordinatuta garatzen du eta nabarmentzekoa da izan duen arrakasta.

“Pastillatik zapatilara” izeneko programan parte hartzeko, kontsultategira deitu eta medikuarekin hitzordua eskatu besterik ez da egin behar. Honekin batera, Esteribarko Kiroldegian bertan ere jaso daiteke honen inguruko informazioa: 948 304 007.



Celorrio doktorearen hitzaldia bizimodu osasuntsuari buruz.



NAFAR BASOAK, ESTERIBARKO TURISMO-ENPRESARIEN ELKARTEA



Nafar Basoak taldearen aurkezpena

Ekainean aurkeztu zen Esteribarko Kiroldegian "Nafar Basoak" elkarte berria, Esteribarko turismo eta ostalaritzako 30 enpresari biltzen dituen. Fernando Goñi, Eugiko pilotari eta ostalari ospetsua da elkarteko presidentea eta 20 urtetik goitiko esperientzia du sektorean.

Esteribarko bizilagunentzat ere "ezezagunak diren baliabide naturalak eta kulturalak" ditugula nabarmentzen du, eta hain zuzen ere, horretarako sortu dute elkarte: "baliabide horiei balioa eman, antolatu eta sustatzeko bokazio argiarekin, bai bertakoek zein beste lekuetatik iristen direnek ere ezagutu eta gozatu ahal izan ditzaten". Iruñetik oso gertu egonik, Goñik dio Esteribar betidanik izan dela hiriburuarentzat "nolabaiteko aisialdi eremua", eta horren erakusle dela besteak beste, "COVID-19aren krisiarekin nabaritu dugun bisitarien gorakada".

Azken urteotan ostalaritzako eta elikagai artisauro eta turistikoaren ekoizpeneko enpresa-jarduera areagotu egin dela nabarmentzen du: "orain arte, enpresaburu bakoitzak modu isolatuan egiten zuen lan, eta faltan sumatzen zen kezka eta beharrak planteatzeko eta ibarrean hain pisu handia duten jarduera ekonomiko horiek indartzeko ideiak proposatzeko gune bat. Esteribarrek oso populazio sakabanatua du, eta elkarrekin lan egiteak, zalantzarik gabe, emaitzak hobekitzeko eragiten du".

Nafar Basoak elkartearen helburuetako bat da hain zuzen ere elkarlana bera: elkartekideekin, udalarekin eta Nafarroako Gobernuarekin batera lan egitea da asmoa, eta zentzu honetan, erantzuna oso positiboa izan dela azpimarratzen dute: "udalarekin hitzarmen bat sinatu genuen eta Nafarroako Gobernuak Turismo Sailarekin lankidetzan aritu ginen; biek ezagutzen dute ekimena hurbiletik, eta hasieratik izan dira bidelagun". Administrazioekin duten lankidetzaren bereziki garrantzitsutzat jotzen du Goñik: "lan-eredu arina duen elkarte gaztea gara, eta hori abantaila gure lana egiteko orduan".

Urrian zehar jarriko dute martxan ataria: www.destinoesteribar.com ataria, eta Esteribarri buruzko baliabide turistikoak eta jardueren programa bilduko ditu besteak beste.

ESTERIBARKO HISTORIA ZAHARREN TXOKOA

URDAIZKO MIGUELTORENAKO JABEA ZURIAINENHILDA AURKITU ZUTENEKOA



Casa Migueltoarena de Urdaniz

Juan de Urdániz 1758ko martxoaren 24an aurkitu zuten itota Zuriaingo errota ubidean ura sartzen den erretenean. Antza denez, Inbuluzketan sortutako hirurogeita hamar urteko Juan de Urdánizek ikusmen arazo handiak zituen. Hilda aurkitu baino 10 egun lehenago irten omen zen Inbuluzketako sortetxetik, eta Iruñean inork ikusi ez zuela eta, senideek, bere berririk gabe, oso kezkatuta bizi izan zituzten egun haiek. Martxoaren 24an jaso zuten albiste

txarra: Juan de Urdániz sasi artean itota aurkitu zutenubidearen ondoan. Errotariak errotara heldu zen emaria oso urria zela ikusita, eta, ahoan sasiak traban zeudela suposatuz, kakoarekin hurbildu eta bertan egin zuen topo Migueltoarena gorpuekin. Lekuko guztiek baztertu zuten beste norbaitek uretara bota izanaren hipotesia, eta Juanen ikusmen murriztuari egotzi zitzaion istripuaren arrazoia.